



Eguesibarreko Udalak Europar Batasuna hiribideko gehiegizko abiaduragatiko isunak itzuliko ditu, izapidetzean egondako forma-akats batengatik.

- ***Itzuliko diren isunak 2020ko irailetik abendura bitartean jarritakoak izango dira.***
- ***Udalak bilera bat aurreikusi du zehapenak kudeatzen dituen enpresarekin (CGI), erantzukizunen norainokoa zehazteko.***
- ***1.400 zehapen inguru dira itzuliko direnak.***

Sarriguren, 2022ko urtarrilak 25 • Eguesibarreko Udalak 1.400 zehapen inguru jarri zituen gehiegizko abiaduragatik Sarrigurengo Europar Batasuna etorbidean 2020ko iraila eta abendua bitartean radar mugikor bat erabiliz.

2021eko maiatzaren 14an, Udalak prentsaurreko bat egin zuen, Nafarroako Administrazio Auzitegiak hala esaten bazuen zigorren zenbatekoa itzultzeko konpromisoa jakinarazteko.

Horregatik, orain, Nafarroako Administrazio Auzitegiak isunen izapidetzean formazko akats bat dagoela dioen ebazpenaren ondoren, Udalak zenbateko horiek itzultzeko modua aztertuko du, eta, aurretik, erantzukizunak eskatuko dizkio zehapen horiek kudeatzeaz arduratu den enpresari, bilera bat egingo baita datozen egunetan.